Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko ekainaren 8a, asteazkena — 108 — Miércoles, a 8 de junio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

2022ko maiatzaren 26an, Tolosako Udaleko Ohiko Osoko Bilkurak, ondorengo akordioa hartu zuen:

«*Lehena.* Bazterkeria egoeran daudenentzat gaueko eta eguneko arretarako udal-zerbitzua Tolosako Udalak bere gain hartzea, berariazko zerbitzu publiko gisa. Zerbitzu hau zeharkako eran kudeatuko da, zerbitzu-kontratu baten bitartez.

*Bigarrena.* Zerbitzu publiko honen oinarrizko araubideari, memoriari eta txostenei hasierako onarpena ematea, eta jendaurrean jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, herritarrek alegazioak aurkez ditzaten.

*Hirugarrena.* Erabaki hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren webgunean argitaratzea.

*Laugarrena.* Xedatzea, epe horretan ez badago alegaziorik, behin betiko onartuta dagoela ulertuko dela.

*Bosgarrena.* Enperadore kaleko 7.eko etxabean dagoen lokala zerbitzu horretara atxikitzea, eta izapideak egitea lokalaren erabilera kontratatzeko.

*Seigarrena.* Erabaki hauen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako Sailari eta Kontuhartzailetzari.»

Beraz, aipatutako espedienteari dagokion Erregelamendua eta gainontzeko dokumentuak jendaurrean jartzen dira hogeita hamar laneguneko epean, iragarki hau argitaratutako egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Epe horrek irauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan.

Tolosa, 2022ko ekainaren 1a.—Alkatea. (3837)

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El 26 de mayo de 2022, el Pleno Ordinario del Ayuntamiento de Tolosa, adoptó el siguiente acuerdo:

«*Primero.* Asumir por el Ayuntamiento de Tolosa el servicio municipal de atención nocturna y diurna para personas en situación de exclusión, como servicio público específico. Este servicio se gestionará de forma indirecta mediante un contrato de servicios.

*Segundo.* Aprobar inicialmente el régimen básico, la memoria y los informes de este servicio público y someterlo a información pública por un plazo de treinta días hábiles, contados a partir del siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que la ciudadanía pueda formular alegaciones.

*Tercero.* Publicar los presentes acuerdos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la página web del Ayuntamiento de Tolosa.

*Cuarto.* Disponer que, de no formularse alegaciones en el plazo indicado, se entenderán definitivamente aprobados.

*Quinto.* Adscribir a dicho servicio el local sito en la calle Emperador n.º 7 bajo, tramitando la contratación del uso del local.

*Sexto.* Notificar los presentes acuerdos al Área de Servicios Sociales y a Intervención.»

En consecuencia, se somete el Reglamento y demás documentos relativos al citado expediente a información pública por el plazo de treinta días hábiles, contados a partir del siguiente al de la publicación de este anuncio.

Durante dicho plazo, el expediente estará a disposición de quien desee verlo y examinarlo en el Área de Servicios Sociales y Salud del Ayuntamiento de Tolosa.

Tolosa, a 1 de junio de 2022.—La alcaldesa. (3837)

EK\CV GAO-I-2022-03837